



❖ HERNANIKO KRONIKA

Zenbaki sarituak

Kronika eta Berriakeko Gabonetako zozketako zenbaki sarituak honakoak izan dira: 0.394 Kronikak saldua, 2.821 Biokbik saldua, 0.559 Urumea Ferretariak saldua eta 1.756 Zinko eneko kioskoak saldua. ||

❖ GABONETAKO EGITARAUA

Olentzero herrian barrena, Gabon kanten doinura, eta truke azoka izango dira gaur

Olentzerorekin ibiltzeko aukera izango da egun osoan: goizean Inmakuladako ikasleekin; arratsaldeko lehenengo orduetan, Ereñotzun, eta Bertso Eskolako kideekin baserri eta sagardotegietan; eta beranduxeago Kaxkoan, Ttarla dantza taldearekin eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduekin.

URTEBETE pasa da dagoeneko eta Olentzero gaur iritsiko da Hernanira txintxo portatu direnei opariak ekartzera eta gainerakoei ikatza. Baina lanean hasteko, egun osoa du aurretik eta herriko auzo eta txokoak girotzen ibiliko da herritarrekin batera, Gabon kanten doinura. Horrez gain, truke azoka izango da, 11:30etan, Karkaban, Gazte Asanbladak antolatuta.

Egun osoan izango da aukera Olentzerorekin ibiltzeko: goizeko 11:00etan Inmakulada ikastetxeak aterako dira errondan; 14:00etan Ereñotzun; 15:00etan, Plazatik abiatuko dira Bertso Eskolako kideak baserri eta sagardotegietara; 18:00etatik aurrera, Kaxkoa girotzen ibiliko dira Ttarla dantza taldekoak, Plazatik abiatuta. Kale buelta egin ondoren, umeei opariak banatuko dizkie Olentzerok. Amnistiaren Aldeko Mugimenduek, preso eta iheslarien eskubideak gogoan izango ditu eta horiek aldarrikatuz, Olentzerorekin ibiliko dira kaleetan barrena, *Hator*, *hator etxera* lemapean. 20:00etan abiatuko dira Plazatik. Horrez gain, elkartasun mariskadako errifak izango dira salgai egun osoan.

Ereñotzun, Askatsu, Algorri eta Izenederretik ez dira pasako

Ereñotzun, iaz bezala, gaurkoan ere ez dira pasako Askatsu, Algorri eta Izeneder baserrietatik, denbora falta dela eta. Baina eskerrak eman nahi dizkiete bertakoei, urtero eman duten laguntzagatik. Horrez gain,



Gabon kanten jaialdiak astelehenean piztu zuen Gabon giroa Hernanin eta gaur ziur Olentzerok indartuko duela.



Musika Eskolako ikasleen emanaldia izan zen atzo Arkupetan.

jakinarazi dute Ereñotzun beharakoan kantatuko dutela.

Abesbatzen emanaldia eta Musika Bandarekin erronda
Abesbatzen emanaldiak eta Musika Bandarekin erronda ere izango dira. Parrokiko

Abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu Agustindarren elizan, 17:00etan, eta Kantuz Abesbatzak kale buelta egingo du 18:30etan aterata Milagrosatik. Eta 20:00etan, Gabon Gaueko erronda aterako da Plazatik, Musika Bandarekin. ||

Gabonetako egitaraua

- **Inmakulada:**
Gaur, erronda 11:00etan. Ondoren, jaiotza eta luntxa.
- **Gazte Asanblada:**
Gaur, truke azoka 11:30etan, Karkaban.
- **31n**, Mus Txapelketa Gaztetxean, 16:30etan, eta errifan zozketa.
- **Ereñotzu:**
Gaur, erronda 14:00etan Plazan.
- **Bertso Eskola - Bertsolata:**
Gaur, Olentzeroa 15:00etan.
- **28an**, 'Ornitorinkus'-en aurkezpena 19:00etan Milagrosan.
- **30ean**, Bertso Eskolako web gunea, DVDa eta materialaren aurkezpena 19:00etan Biterin.
- **31n** Erronda Plazatik 18:00etan.
- **Urtarrilak 6**, bertso jaialdia 19:00etan.
- **Amnistiaren Aldeko Mugimendua:**
Gaur, Olentzero 20:00etan Plazatik. Egun osoan, elkartasun mariskada.
- **26an**, Martutenera martxa, 11:00etan Astigarragako poligonotik (Biurraarena).
- **31n**, urteko azken kontzentrazioa, 20:00etan Plazan.
- **Urtarrilak 8**, manifestazio nazionala Bilbon 17:30etan. Autobus zerrendak Goiz Argi, Rioja, Oinndi eta Garinen.
- **Parrokiko Abesbatza:**
Gaur, Gabon kantak 17:00etan Agustindarren elizan.
- **Ttarla dantza taldea:**
Gaur, Olentzeroa 18:00etan Plazan.
- **Kantuz Abesbatza:**
Gaur, Gabon Gaueko kale buelta, 18:30etan, Milagrosan.
- **26an**, Eliz musika kontzertua, 19:00etan, Milagrosan.
- **Musika Banda:**
Gaur, Gabon Gaueko erronda, 20:00etan Plazan.
- **Ohitura Zaharrak Abesbatza:**
31n, Urte Zaharreko erronda, 17:30etan.
- **Haurrentzako ekintzak:**
29an, Ametsen basoa. Kulturarteko jolasak, 11:00-13:00, Atsegindegian.
- **30ean**, mahai jolasak, 17:00-19:00 Biterin.
- **Urtarrilak 2-3**, zinea 17:00etan, Biterin. Sarrera: 2,50 euro.
- **Urtarrilak 4**, ipuin kontaketa 11:00etan eta 11:30etan Liburutegian. Eta txobxongiloak, 17:00etan Biterin.
- **Urtarrilak 5**, Errege kabalgata, 18:00etan, Urbieta kaletik.

❖ UDALA

Zabor bilketa

berezia, Gabonetan

Gabonak direla eta, atez ateko zabor bilketan aldaketak izango dira. Batetik, bihar eta urtarillaren 6an Udalak kartoia eta ontzi arinak biltzeko puntu berde bat jarriko du herritar guztientzat Urbieta kalean (frontoiaren aurrean), goizeko 11:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

Bestetik, Kaxkoko eta inguruko atez ateko bilketan aldaketak izango dira. Aldaketek kale hauetan bizi diren herritarrengan izango dute eragina: Atzieta, Gudarien plaza, Ezkiaga, Ituriaga, Izpizua, Kardaberaz, Nafar kalea, Biteri, kale Nagusia, Plaza berri, Urbieta kalea (Elkano eta Atzieta kaleen artean) eta Zapa. Bihar ez da errefusa bilduko, eta horren ordez gaur bilduko da, 14:00etatik 17:00etara. Gaur eta 31n hondakin organikoen bilketa aurreratu egingo da, 22:00etan hasiko baita.

Eremu bereko dendariak eta tabernariak ere aldaketak izango dituzte. Gaur eta 31n, 14:00etatik 17:00ak arte jasoko da errefusa. Horrez gain, urtarillaren 1ean gausez atera ahal izango dute errefusa, gainerako herritarrekin batera. Gaur eta 31n hondakin organikoen bilketa aurreratu egingo da, 22:00etatik aurrera izango da. Bestetik, gabon egun horietan jendea kalean ibiltzen denez, bilketa bukatu bezain pronto, dendariak eta tabernariak edukiontzia lokal barrura sartu beharko dituzte, komertzioa ixita egon arren. Dendari eta tabernariak ere erabili ahal izango dute puntu berdea papera, kartoia eta ontzi arinak pilatuz gero, aurrez aipatutako ordutegi berean. ||



RIOJA TABERNA

Mila esker bihotzetik gure ondoan izan zareten denoi. Eguberri on guztioi!

kale nagusia, 6



Juli eta Lourdesek Gabon zoriontsuak opa dizkizute guztiei.

Eguberri On!!

ZINKO-ENEA kioskoa

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 333288 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **GAUR:** Egunez: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793
✚ **FARMAZIAK** ● **BIHAR:** Egunez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauz:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

❖ ANGEL OLARAN - GIPUZKOAKO URREZKO DOMINA

«Diabolikoa da, jatekorik ez dutenei esker aberasten den gizarte bat»

Angel Olan misiolariak atzo jaso zuen Gipuzkoako Urrezko Domina, Afrikan egiten ari den lan humanitarioagatik. Olanek sarreratik aipatu zuen, sari hau jasotzeak sortzen dion kontradikzioa.

«*LEHEN Munduak* abusatu egiten du *Hirugarren Munduarekin*, maila ekonomikoan, maila sozialean, kulturean, politikoan eta erlijiosoa». Hori salatu zuen atzo Angel Olan misiolari hernaniarra, Gipuzkoako Diputazioko Areto Nagusian, Gipuzkoako Urrezko Medaila eman zioten ekitaldian.

Markel Olano Ahaldun Nagusiak egin zion ongi-etorria Diputazioan, eta dantza, *laudatio* bat, eta bertsoak ere izan ziren, sari-omate ekitaldian. Markel Olanok esker oneko hitzak izan zituen, eta bertsoak Maialen Lujanbiok kantatu zizkion.

Ekitaldian jende ezagun asko zen, eta hernaniar asko ere bai: Hernaniko alkate eta zinegotziak, Setien gotzain ohia, Olanen familiarteko eta lagunak...

«Kontradikzioa sortzen dit horrelako ekitaldi batek»

Bideo batean kontatu zuten Angel Olanek Afrikan egin duen lana, azken 40 urteetan; hasi Tanzanian, eta orain Wukron, Etiopian.

Ondoren, Olanek hartu zuen hitza, eta adierazi zuen kontradikzioa sortzen ziola



Angel Olan hernaniarra, atzo, Diputazioko Areto Nagusian.

«Aberatsen mundutik begiratuta, txalotzekoa da ekitaldi hau; baina pobreen mundutik, txalo horiek goragalea ere eman lezakete».

horrelako sari bat jasotzeak. «Aberatsen mundutik begiratuta, txalogarria da horrelako ekitaldi bat; baina pobreen mundutik, txalo horiek, *goragalea* ere eman lezakete». *Abuso* hitza erabili zuen Hirugarren Munduarekin egin dena deskribatzeko. «Oso tristea da, batzuk aberastasunean bizi diren bitartean, beste batzuk ondoan

miserian izatea. Baina jatekorik ez dutenei esker aberastea, hori diabolikoa da. Deabrua bera ere bildurrez egongo da mundu honi begira».

«Orain 500 urte hasi zen Afrikako tragedia»

Gaur egun egiten denak izenik ez duela adierazi zuen Olanek. «Orain dela 500 urte inguru, hiru karabela iritsi ziren Europatik Afrikara. Orduan hasi zen tragedia. Lehenengo esklabutza, gero kolonialismoa, eta orain... oraingoak ez du izenik! Gaur, inoiz baino harroago defendatzen dugu gure demokrazia, zibilizazioa, eta gizatasuna... eta inoiz baino hildako gehiago eragiten da... eta onartu». II

🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Oilo beltzak, arrautza...

Pertsona askok erakutsi didate asko. Haietako bat: alzheimer gaitzaz joan zait (gezurra: ezin dut burutik kendu). Eta, erakutsi handiena eman zidan, gaitza (borragoma baten antzera) memoria jaten hasi zitzaionean: borragomak auto-zentsura (norberaren gezurrak) jaten du lehenik: orduan, azaltzen dira norberaren ezkutuko egia.

Don Quijote, eroa omen. Ba, Don Quijote eroari esker, arrazoi handiagoz idazten dut euskaraz.

Baina, behar bada, erakutsirik zailena, pertsona desgaitu batek eman dit. Gabezi latza du: hanka bat falta. Baldar dabil zurezko hankaz, eta makuluaz. Baina, kontuz. Ez errukitu!

Gizatxarra da. Koldarra. Gezurteroa. Ez du lagunik. Haren itzalak berekin sortuko dizu izua, eta ikara. Long John Silver pirata maltzurraz ari naiz. Jo ezazu Altxorraren uhartea, eta hantxe egingo duzu topo, bere loro berdea bizkarrean duela. Atzo bertan, pirata maltzurak labanaz pasa zuen koadrilako bat. Ordea, oraintxe bertan, pirata maltzurari bihotza beratu zaio, Jim Hawkins (mutikoa) istilu gorrian ikusi duelako. Eta, pirata maltzurra kapaz da, bere burua urkan galtzeko, mutikoa salbatze arren. Gero, berriro ere, bere betiko trapukerietara itzuliko da: batere ez harritu, Hernanin ikuste baduzu pirata hanka-bakarra, zebra-bide erdian bere autoa aparkatzen, amona-xaha-

rrei enbarazu egite aldera. Baina, mutikoarekin beti jator portatuko da.

Mundua ez da «oesteko» pelikula: txintxoa, beti txintxo (eta pintxo); eta maltzurra, beti maltzur (eta zatar). Errealitatean egia eta gezurra nahasturik daude: «Oilo beltzak, arrautza zuria; gezurrak, tartean, egia»: ez da media txarra: telebistako informatiboen parekoa.

Egunero irensten ditugun informatibo gehienak, buru bakarren batek manipulatu ditu. Hark ere loro bat du bere mende (Long John Silver-ek bezala): «mikro» baten aurrean dagoela, beste alderik ez. Kri- siak, guztiaren gainetik, egia jo.

Jexux Eizagirre Portillo

❖ KANTUZ ABESBATZA

Eliz musika kontzertua igandean

Eliz musika kontzertua emango dute Kantuz Abesbatzak eta Aiztondo Abesbatzak, igandean. Arratsaldeko 19:00etan izango da Milagrosan. 13 abesti kantatuko dituzte Igor Arroyoren zuzendaritzapean. II

❖ ZINEA

‘Guru, mi villano favorito’ ikusgai igandean eta astelehenean

Aste honetan, Biteriko zine emanaldia igandean eta astelehenean izango da. Bi egunetan *Guru, mi villano favorito* emango dute publiko guztiarentzat, arratsaldeko 17:00etan. II

❖ GARAYAR AUTOBUSAK

Gabonetan, ordutegi aldaketa

Garayar autobusetan ordutegi aldaketa izango da Gabonetan. Gaur eta Urte Zahar egunean, azkeneko G1 autobusa 20:00etan aterako da Hernanitik eta 20:30etan Donostiatik; G2 19:45etan Andoaindik eta 20:30etan Donostiatik; G3 20:00etan Andoaindik eta 20:30etan Ciudad Sanitariatik; E 20:30etan Astigarragatik eta 20:15 Usurbiletik. Bihar eta Urte Berri egunean lehenengo autobusak honakoak izango dira: G1 09:45etan Hernanitik eta 10:15etan Donostiatik; eta G2 09:45etan Andoaindik eta 10:00etan Donostiatik. Bihar eta Urte Berri egunean ez da gaueko zerbitzurik izango. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

✚

I. URTEURRENA

Maria Almorza Lizeaga

ANDREA

(Jose Ramon Insaustiren alarguna)

2009ko abenduaren 3an hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Arantza eta Jose Ramon Beroitz, Joxe eta Poli Jimenez, M^a Lourdes eta Julio Gil; bilobak: Iñigo eta Kistiñe, Imanol eta Edurne, Asier eta Laura, Jon eta Maria, Amagoia eta Agin, Iulen eta Andrea, Idolia eta Gabriel; anai-arrebak: Antonio(+), Miguel, Milagros, Dolores eta Jesus; ezkon anai-arrebak; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **ETZI, IGANDEA**, eguerdiko **12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan, egingo den **Urtebetetze Mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 24an

VI. URTEURRENA

Joxe Igarritz Etxeberria

2004ko abenduaren 25ean hil zen Hernanin

(Marta Igarritz Euskal Preso Politikaren aita)

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, beti izango zaitugu bihotzean.

Asko maite zaitugu.

ETXEKOAK

Urteurreneko meza, **BIHAR, LARUNBATA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parrokian. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko abenduaren 24an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lanerako prest: sagardotegitan, ostalaritzan... Harremanetarako: 617 630 528
Pisu bat alokatzen dut Hernanin, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kalefakzio indibidualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tlf: 600609754
Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jeiki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea.Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietza 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)